

Ondakiñak eta gizona

Alderdi, 276. zk., 1972-06.

Ondakiñak lurra ondatzen ari dira; egi au ez da arkitu berria.

Ondakiñak dirala-ta agintari asko asi da erriaz kezkatzen, eta munduko gobernu geienak biali dituzte ordezkariak Estokolmon egin berri-berria den batzar nagusi batera. Batzar nagusi onetatik urten dan oina ikaragarria izan da: gizona bere lurra ondatzen eta betiko erretzen ari da!

Eta ez da gutxigorako, gizonaren arnas-aide, ur eta lur guziak kutsutzen ari zaizkigu-eta; euskotarrak ondo aski dakigu Nerbion eta Oria nola datozen.

Ala ere ba dira ondakiñ oietatik kanpo gizona geiago eta sakonago zikintzen dutenak, eta oiek gizatasunaren ondakiñak dira: arrazoi gabeko indarra, kartzela, bildurra, zensura; eta bere aurrekoak: nausitzargoa, jauntxokeria eta basakeria. Erdoiak eta keak eta apar ori-zikiñak, denak dira, noski, gizonaren soin-osasunaren kalterako; gizonak arnas-aide garbia bear bait du bere biriken bidez odola garbitzeko; gizonak eta bere munduak, inguruko mundu guziak, ur garbia bear bait du bizirik iraungo ba du, eta gizonak bixtaz ere lur garbi eta berde bat bear bait du ixpillu batean bezala bere barrengo mundua nolabait txukun ikusteko.

Au egia da eta garbitasun onen billa dabillen gizonak ba du arrazoi franko.

Baiña ondakin oiek egiten dioten kaltea baiño okerragoa datorkio gizonari bere itza aoan gorde bearretik, gizonak gizon artean eta gizon bezala ezin biltzetik, gizonak idazteko erabiltzen duen besoa eta eskua moztu bearrik gabe bildur-bidez anima bera gutxitu eta ezerezte oretatik.

Munduko azal-ondakin oiek gai dela egin dan bezala, ez aal da gizonaren oiñarrian dagozen eskubideak gordetzeko bear den batzar nagusi bat deitu bear?

Au egiten ez den bitartean, gizonak bear-bearrezko dituen askatasun bideak idekitzeko erarik sortzen ez den bitartean, ez bedi iñor arritu gizonaren garai emankorrenean, gazte aroan, izkilluz jantzi eta mendira edo urikalera urtetea ostu zaiona bere eskuz atzamateko.

Ba dira oraindik ondakiñak aiña arreta merezi duten arerioak.